

# Euskal Vox



**KIMETZ ARANA  
BUTROE  
BARATZEZAINA**

**S**onatuia izan zen joan den astean Voxek Sestaon antolatatu zuen mitina. Ultraeskuineko alderdiaren ordezkariekin etorritako lau katu erdian, deialdi antifaxistari erantzunez jendetza ezin kabituz plaza inguruan. Bateko zalaparta, besteko korrikaldi eta poliziaren bultzakadak izan ziren albiste, Vox EAeko hauteskunde kanpainan ari den ildoan.

Biharamunean ezagun ditudan alderdi sozialistako adineko bi militanterekin topatu nintzen kalean, nik gaia atera gabe, harritua utzi ninduen protesta antifaxistarekiko adierazi zuten begikotasunak. Ezin ulertua zuten nola ultraeskuinak Ebrotik behera hainbesteko indarra hartu duen. Are gehiago, seguru zeuden inoiz horrelakorik ezinezkoa litzatekeela “*Euskadin*” bertoko izatearen, langile mugimenduaren historiaren eta pentsamendu aurrerakoiaren ondorioz. Nire dudak azaldu nizkien.

Espanian orain Vox bozkatzen dutenak ez dira ilargitik iritsi, lehen ere bertan zeuden eta ez dut uste Abascalen hitzak entzunda ultraeskuindar bihurtu direnik. Voxtarrek lehen ere orain antzera pentsatuko zuten eta PP bozkatuko zuten segur aski askok.

*Euskadi* ez da munduko gertakizunetatik isolatua dagoen irla. Hemen ere bada kanpokoak laguntzetatik bizi direla edo genero berdintasuna egina dela uste

duenik. Poliziaren gehiegikerien aurrean itsuarena eta gorrarena egin, nagusien esanetara beti makurtu edo edozein gutxiengoaren beharrak (folkloretik kanpo) euskaldunenak barne) ikusi nahi ez dituenik. Eta ez dira gutxi. Esango nuke *Euskadin* halako mundu ikuskera dutenak, beste askorekin batera, gustura kokatzen direla PNVn.

Meatzaldea eta Enkarterrin jakina da frankista asko Franco hil aurreko alkan-dora urdinarekin oheratu eta PNVn izena emanda esnatu zirela Trantsizioaren egunsentian. Ez dut uste gaudetik goizera egundoko aldaketa ideologikorik izan zutenik.

Ildo beretik azken hamarkadan, bes-teren artean, PPK izandako beherakadagatik puztu da PNV. Datozen krisien bidegurutzetan PNV delako *Euskadin* neoliberalismoaren baloreak eta dominazio sistema iraunaraztea egokien bermatuko duen aukera. Beraz *Euskadiren* berezitasuna genuke gaurkoz PNVk biltzen duela hiru lurraldeetako ia eskuin osoa. Ikusteke legoke orduan zer irtengo litzatekeen hortik noizbait boterea galduko balu, are gehiago hori inoiz Bizkaian gertatuko balitz.

Honetaz eta hartaz jarraitu genuen kalakan, Dani Arranz, Gemma Zabaleta eta abarrek eginiko idatziaz, baina hori beste baterako kontua da. ●

# ‘Lemmings’-ak gara



**ITZIAR BARDAJI  
GOIKOETXEA  
IRAKASLEA**

**B**ilatu googlen *Lemmings* jokoak, mitikoa, nire adinekoek gogoratuko dute. Entzun berriz jokoaren musika, ikusi gizontxoak aterkiarekin erortzen eta adreiluak ipintzen. Hau da testu txiki honetarako agertokia.

Industrializazioa, kristautasuna, zuzenbidezko estatu poliziala... zibilizazioak aurrera egiten du. Gai gara modu ordenatuan birus bati denen artean aurre egiteko: kalean itxoin, sartzean maskara jarri, besteekiko distantziak mantendu, besteak ez ukitu. Maite dituzunak pantailaz agurtu, orain etxean geratu, orain terrazan kontsumitu. Harro gaude

zibilizazio garen heinean, hiritar eredugarriak izan gara. Ordenari obedituz elkar zaintzen dugu, seguruago gaude, efizienteago produzitzen dugu.

Ordenari obedituz zapalkuntza eta ezberdintasunetan oinarrituriko sistema elikatzen dugu, konturatu gabe geure burua soldatapeko lanean, monogamian eta hipotekan murgilduta topatzen dugu bertara nola iritsi garen ondo jakin gabe. Bat-batean amildegi batean amaitzen den adreilu eskailera bat eraikitzen ari diren *lemmings*ak gara, txintxo-txintxo petroleoa eta bizitza bera agortu arte lurra zulatzen ari direnak. ●